



ESKOLA BITARTEKARITZA

ZELAN JARRI MARTXAN?



ZER DA ESKOLA BITARTEKARITZA?



Bitartekaritza gatazkak ebazteko **metodo egituratua** da; bertan, **hirugarren alde batek** gatazkan dauden aldeei laguntzen die haien kezkek entzunez, **komunikazioa erraztuz eta negoziatzen lagunduz.**

Bitartekariak aldeei **irabazi-irabazi irtenbideak** sorrarazten ahalegintzen dira.

Nahiz eta bitartekariak prozesuaren ardura hartu, **aldeek** gatazkaren irtenbideari buruzko **erabakiak hartzeko** gaitasunari eusten diote.

ESKOLA BITARTEKARITZAREN HELBURUAK



- Edozein arrazoi dela-eta, inplikaturako aldeek konpondu ezin izan dituzten **gatazkei ekitea**.
- Ikasleen **partehartzea** onartu arazoak konpontze-rakoan.
- Gatazkak ebazteko **trebetasunak** irakastea programan inplikaturako taldeei.
- Elkarbizitza **hobetu**
- Indarkeria mailak **murriztu**



Eskola Bitartekaritzaren printzipio eta oinarriak.



Boluntariotasuna. Aldeek borondatez jotzen dute bitartekaritzara eta edozein momentutan erabaki dezakete uztea.

Erabakitzeko autonomia. Aldeek gatazkari buruzko erabakiak hartzeko gaitasunari eusten diote. Bitartekariak ezin du inolako irtenbiderik ezarri.

Neutraltasuna eta inpartzialtasuna. Bitartekaria ez da inoren alde jartzen.

Konfidentzialtasuna. Prozesua isilpekoa da eta bitartekaritzan esandakoa ezin da errepikatu beste edozein tokitan.

Fede ona. Aldeek bitartekaritzara jotzen dute euren helburua, benetan, gatazka ebaztea delako

Ikasleengan garatzen ditugun zenbait aspektu: **gizarterako eta hiritartasunerako gaitasuna**

- Nork bere burua ezagutzea.
- Hazkuntza pertsonala.
- Komunikazio eraginkorra.
- Erabakiak hartzeko gaitasuna eta berauekiko k...
- Emozio indartsuen maneiu egokia.
- Enpatia.
- Gatazken ebazpen kolaboratzailea



Birtartekaritzarako egokiak eta desegokiak diren gatazkak


- Hondatu diren adiskidetasunak.
- Errespetu faltak.
- Zurrumurruak eta gaizki-ulertzeak.
- Objetu pertsonalak.
- Jolaserako espazioak.
- Bereizkeria edo zirikatzea.
- Baloreak.



- Birtartekaritzaren printzipioak betetzen ez badira.
- Ikastetxeko araudiak zehazten duenean egoera diziplinaren bidetik zuzendu behar dela.
- Botere desoreka handia dagoenean aldeen artean, esate baterako, ikaskideen arteko tratatu txarren kasuan.
- Pertsonarteko gatazka ez denean, edota gaiak ez direnean negoziagarriak, adibidez, disrupzio egoerak ikasgelan

BITARTEKARITZA-PROGRAMA INPLEMENTATZEKO FASEAK

- Ikastetxearen **konpromisoa** eta **Talde Koordinatzailea (PTK)** eratzea.
- **Programa** eta martxan jartze-prozesuaren **diseinua**.
- Bitartekarien taldea **hautatu**.
 - 3.1.- Bitartekaritza programa geletan aurkeztea.
 - 3.2.- Hautagaien proposamena
 - 3.3.- Banakako elkarrizketak egitea.
 - 3.4.- Bitartekariak aukeratzea.
 - 3.5.- familiei infpormazioa eta euren baimena eskatzea
- Bitartekarien taldea **formatzea**.
- **Programa zabaltzea**.
- Bitartekaritza Zerbitzua **antolatzea**.
- **Koordinazioa eta jarraipena**.
- **Ebaluazioa**



1.- Ikastetxearen konpromisoa eta Talde Koordinatzailea (PTK) eratzea



- Abiapuntua: kontsensusa= ikastetxeak egin nahi du.
- Programaren Talde Koordinatzailea eratu. Bere egitekoak:
- **Bitartekaritza-programa diseinatu**, kontuan izanda egin beharreko ekintzak, epeak eta pertsona arduradunak.
- Bitartekarien hautaketa **antolatu**
- Bitartekariak trebatzeko logistika **koordinatu**.
- Kasuen **deribazio-sistema antolatu** eta berrikusi
- **Bitartekaritzen garapena prestatu**: ordutegiak, espazioak, bitartekarien izendapena, txandak, ...
- Ikasle bitartekariekin egin beharreko hamabosteroko **Jarralpen-bilerak zuzendu**.
- Bitartekaritza-saio guztiak ondo **erregistratzeko sistema eduki**, eta behar diren datu estatistiko guztiak bildu
- Urtean behin, gutxienez, ekitaldi bat egin **bitartekarien lana gorailatzeko**
- Tarteka, eskola-komunitatearen artean bitartekaritza-programa **zabaltu**, bere hedapena bultzatzeko.
- **Irakasleak jakinaren gainean eduki** bitartekaritza-programaren eboluzioaz. .
- Programa **ebalatu eta emaitzak zabaltu** .

2.- Programa eta martxan jartze- prozesuaren **diseinua**



PTK taldeak erabaki behar du...

- Programaren **helburuak**, orokorrak eta zehatzak [Adibidez](#)
- **Nori zuzendua dagoen** (ikasletoa, irakasletoa, familiak,...)
- Bitartekaritza egingo den eta egingo ez den **gatazka motak**
- Inplementazio-prozesua eta programaren antolaketa :

Jarduerak	Epeak	Arduradunak
Bitartekariak hautatzea eta prestatzea		
Programa zabaltzea		
Bitartekaritza antolatzea		
Jarraipena		
Ebaluazioa		

3.- Bitartekarien taldea **hautatu**



Bitartekari ona/egokiaren ezaugarriak:

- **Lidergo** ahalmena, ahal delarik, positiboa.
- Beren ikaskideek **errespetatuak** izatea eta besteei konfiantza ematea.
- Beste ikasle batzuei **lagundu nahi izatea**.
- **Hizketarako** erraztasuna.
- **Pazientzia** izatea eta lasaitasunari eustea.
- **Umorea** izatea.
- **Iniziatiba** izatea.
- Bitartekaritza-programarekin ikasturte osoan aritzeko **konpromisoa** hartzeko prest egotea.



3.- Bitartekarien taldea **hautatu**

3.1. Bitartekaritza-programaren aurkezpena ikasgeletan.

- **Tutoreak egiten du tutoretza saio batean.** Gidoi posiblea:
- **Sarrera.** Programaren deskribapena. Bitartekaritza-trebakuntzaren deskribapena. Ikasleentzat bitartekari izateak dituen onuren deskribapena.
- **Eszenifikazioak:** gatazka bitartekaritzarik GABE eta bitartekaritza-REKIN: konparazioa eta aldeak
- **Hausnarketa:** zer da bitartekari izatea?
 - Zer behar da? (kualitateak)
 - Konpromisuak



3.- Bitartekarien taldea **hautatu**

3.2. Hautagaien izendapena.

Tutoretza saio berberean, tutoreak ikasleei proposatzen die biartekari-taldea lortzeko bi bide:

a.- **Autonominazioa** (Ikasleek izenda dezakete euren burua, boluntario gisa aurkeztuz bitartekari izateko.)

b.- Ikasle bakoitzak bitartekari egokitzat jotzen dituen **hiru kide** proposatuko ditu. .

Horrez gain, **tutore bakoitzak bere taldean hautagai egokitzat** jotzen dituen ikasle batzuei proposatuko die bitartekari-taldeko partaide izatea.

Hiru zerrendak PTKra bidaltzen dira.



3.- Bitartekarien taldea **hautatu**

3.3. Norbanako elkarrizketak egiten ditugu (PTK) hautagai guztiekin. Elkarrizketa hori ordezkatu daiteke **inkesta honen** bidez..



- Euren arrazoiak eta interes maila hobeto ezagutu ditzakegu.
- Elkarrizketa bukatzeaneta hautatua izan bada, hautagai bakoitzari esaten zaio bere gurasoei baimena eskatuko zaiela PTKtik.



3.- Bitartekarien taldea **hautatu**

3.4. **Bitartekarien hautaketa .**

- Hautagaien izendapenean eta elkarrizketetan lortutako emaitzen arabera, talde koordinatzaileak (PTK), azkenik, familiek baimena emanaz gero, bitartekari-taldea osatuko duten ikasleak aukeratuko ditu.
- Aukeratu ez diren ikasleei arrazoiak ematen zaizkie.
- Hautatuen familiei baimena eskatzen zaie.



4.- Bitartekari-taldearen prestakuntza



- Gatazkarako sarrera: definizioa, alderi positiboak eta negatiboak, gatazka motak eta kausak, eta gatazkek ebazteko estiloak.
- Bitartekaritza egiteko moduko kasuak eta ezinezkoak.
- Gatazkaren analisia
- Komunikazio eraginkorreko teknikak: komunikazio-oztopoak, entzute aktiboa, mezu asertiboak, galdera egokiak...
- Bitartekaritza prozesua: faseak, egitekoak...
- Zelan egingo dugu gure ikastetxean?: bitartekarien egitekoak eta erantzukizunak.



5.- Programaren hedapena.

- Ezinbestekoa zerbitzuaren erabilera sustatzeko.
- Bitartekari-taldearen prestakuntza bukatzean dagoenean egitea da komenigarriena.
- Hartzaileak: Hezkuntza-komunitatea osoa. (Ikasleak, irakasleak, gurasoak, OMR-a, ez-irakasleak,...)
- Hedapen formatu posibleak:
 - Ikasle bakoitzari emandako triptikoa
 - Kartelak ikastetxean
 - Bitartekari-taldea geletan aurkeztea
 - Familientzako informazio-gutuna
 - Ikastetxeko web-orria.
 - ...

6.-Bitartekaritza-zerbitzuaren antolaketa

6.1.- Espazioa edo bitartekaritza-gela

- Lasaia eta atsegina
- Bitartekaritza egiten ari den bitartean beste jarduerarik egingo ez dena
- Ekipamendua:
 - Mahai bat eta lau aulki
 - Erabiliko diren inprimaki guztien kopiak ere behar dira eta artxibategi bat horiek artxibatzeke.



6.-Bitartekaritza-zerbitzuaren antolaketa



6.2.- Ordutegia

- Ahalik eta gutxien eragitea eskola ordutegiari
- Agian, eskola-orduren bat erabili beharko da: kasu horretan, berreskuratu beharko dute bai bitartekariak baita inplikatuak ere.
- Ohikoena: bitartekarien eta inplikatuak une "libreak" erabiltzea



6.-Bitartekaritza-zerbitzuaren antolaketa



6.3.- Dokumentazioa

- Bideratzeko inprimakia edo bitartekaritza-eskaerakoa. (bis)
- Saiorako Zita.
- Akordioaren inprimakia.
- Bitartekaritza-saioari buruzko ebaluazio-galdetegia.
- Bitartekaritzaren azken txostena.
- Jarraipen txostena.



6.-Bitartekaritza-zerbitzuaren antolaketa

6.4.- Txandak (beti ere, 2 bitartekari gatazka bakoitzeko)

PTK-ak gatazken bitartekaritza-saioak banatuko ditu bitartekarien artean, honako hauek kontuan hartuz...

- Generoa
- Adina
- Ordura arte egindako bitartekaritza kopurua.
- Gatazkaren zailtasuna
- ...



6.-Bitartekaritza-zerbitzuaren antolaketa

6.5.- Zerbitzuaren faseak

- a.- **Bideratzea edo eskatzea.** Inprimakia bete behar da.
- b.- Kasuaren **harrera** (PTK). Gatazkan bitartekaritza posiblea den ala ez erabakitzen du. Biartekarien esleipena. Gatazka bakoitzeko, bi.
- c.- **Aurre-bitartekaritza:** banakako elkarrizketak.
- d.- **Bitartekaritza saioaren prestaketa:** noiz, non, irakasle afektatuen baimenak. Deialdia.
- e.- **Bitartekaritza saioa** (aurre-bitartekaritza egin eta 2/3 egun geroago): harrera, alde bien bertsioak, gatazka argitu, irtenbideak proposatu eta aukeratu, adospena.
- f.- **Jarraipena:** akordioa bete dela baieztatzea.





7.- Koordinazioa eta jarraipena

PTK eta bitartekari-taldearen arteko bilerak, honako hauek egiteko...

- Praktika onak eta somatutako arazoei buruzko informazioa partekatzeko.
- Bitartekari-taldearen kohesioa eta programarekiko konpromisua sustatzeko.
- Kasurik zailenak aztertzeke eta trebakuntza hobetzeko.
- Bitartekaritzaren praktika hobetzeko.





8.- Ebaluazioa



Zer ebaluatu daitekeen:

- Programaren hasierako helburuak.
- Biartekarien trebakuntza eta praktika.
- Erabiltyzaileen asetze-maila
- Programaren estatistika.
- Jarraipen bileren funtzionamendua.
- Ikastetxearen balorapena: erabilgarria al da programa?

Tresna posibleak:

- 1.- Metatutako datuak aztertuz.
- 2.- Galdetegiak.
- 3.- Programaren funtzionamenduari buruzko iradokizunak (Buzoia)

ZORTE ON !!!

